

Adinduen egun handia igandean

Udalak Lasarte-Oriako adinduak omenduko ditu, urtero egiten duten bazkarian

Urtero legez Udalak Lasarte-Oriako 65 urteko jubilatuek eta erretiratuak omenduko ditu igande honetan ohiko bazkari eta ekitaldiekin. Igandean Michelingo frontoian 900 pertsona bilduko dira bazkaltzeko.

Asteazkenean, Villa Miretxun adinduen egun handia iragarri zuten Biyak Bat elkarteko lehendakariak eta idazkariak, Mertxe Galdosek eta Manolo Urdanpilletak, Ana Urchueguia Alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako lehendakariak, Lurdes Acevedok.

Igandean, egun berezia izango da adinduentzako, "bizitza oso baten errekonozimendu publikoa" jasoko dutela adierazi zuen Lurdes Acevedok, "gure zaharrek atentzio berezia eta maitasun osoa merezi dute". Honen harira, alkateak gehitu zuen

"udalak gastu guztiak bere gain hartzen ditu eta gure adinduen bizi-kalitatearen alde lanean jarraituko dugu".

Festa giroan

Ohiko mezarekin ekingo diote egunari. 10:30ean San Pedro elizan Xabier Andonegik emango du meza eta Alboka Abesbatzak eta Patxi Etxeberriak parte hartuko dute bertan. Erketzeko dantzariak eta Jon Lasak bere trikitilariarekin elizako irteera girotuko dute. Ondoren, Biyak Bat elkarteko abesbatzak kantaldia eskainiko du Zero Sette Akordeoi Orkestrak lagunduta. Eta ordubiak aldera 900 pertsona bazkaltzeko elkartuko dira Michelingo frontoian. Bazkalostean, dantzaldiaz gozatzeko aukera izango dute.

Prentsaurrekoan aurreratu dutenez, M^oDolores Toribio (93 urte) eta Villajos Gomez (90 urte)



Ezkerretik hasita, Manolo Urdanpilleta, Mertxe Galdos, Ana Urchueguia eta Lurdes Acevedo.

omenduko dituzte, bazkarira joango diren zaharrenak baitira. Aurten 80 urtetik gorako 40 herritar animatu dira bazkarira.

Biyak Bat elkarteak

Mertxe Galdosek gogoratu

zuten elkarteak antolatzen dituen ikastaro eta ekitaldiak: soinketa, dantza, aerobic... "joste eta puntu-lanak albo batera uzten ari gara eta bestelako iharduerak antolatzen ditugu". Mertxek azpimarratu

zuen adinduen garrantzia: "egun oso azkar bizi gara eta adindu askok beraien etxetean lekuz kanpo sentitzen dira. Uste dut, adin bateko jendeari errespetua eta maitasuna zor zaigula".

Kontzertu pedagogikoa

Landarbaso abesbatzak kontzertu pedagogikoa eskaini zuen asteartean kulturetxeko aretoan. Kutxako gizarte ekintzak babestutako emanaldia hasi baino lehen, abesbatzako zuzendariak, Iñaki Tolaretxipik Lasarte-Oriako musika eskolari eta udalari eskerrak eman zizkien.

Ondoren, Erreterriako abesbatzako mutil eta neskek folklorea uzartu zuten beraien abestietan eta Ana Urraka lasarteoriarrak eta Jorge Vidriales tenoreak bakarlarri bezala abestu zuten.

Egitarautik kanpo Ukutula abesti afrikarra eskaini zuten eta saioari amaiera emateko Agur Jaunak. Aretoran bildu ziren entzuleek txalo zaparrada eskaini zieten ordu erdiko emanaldia eskertuz.



GIZARTEA ■ 3

Gazteentzako ikastaro ugari eskaini ditu Gazteria Sailak

ELKARRIZKETA ■ 4

Irurako ikastolako guraso lasarteoriarrarekin solasean

KIROLA ■ 6

Anduri herriko zaldia bikain ibili da Europako txapelketan



Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

Neure kabuz



**Bisiestuan maratoia
Lasarte-Orian**

Badakit lasarteoriarrek gogotsu ari direla euskararen maratoia prestatzen, aurtien ere. *Aurtien* erak esan nahi du (zenbat kostatzen den ERE ongi erabilaraztea) urteetan ari direla euskararen aldeko maratoia antolatzen, eta oraindik jarraitu beharra ikusten dute. Nik esango nuke, honezkerok, ez luketela inoiz bertan behera utzi behar, ezta Lasarte-Oria osoa euskaldundutakoan ere. Ibilaldi luzearen amaieran, herri osoaren festa handi eta alai bilakatu beharko luke. Orduan errazago izango da urtero ospatzea, orain lau urtez behin egitea baino.

Herri osoa maratoiaren bidean jarririk dago, nahiz eta duen lan egin baino ospatzea nahiago, baina hori ere iritsiko da uste baino garaizago, ozen deitzeko: "Lasarte-Oria erdalduna zen lehenago!"

Euskaltegien aurtengo ikasurtea irekitzeko ekitaldian, David Crystal galestara izan genuen hizlari Miramar jauregian. Hizkuntza minorizatuen egoeraz eta sustatzeko beharrezkoak diren ekintzak mintzatu zitzaizun. Batetik, ezinbestekoa omen herriaren bultzada; bestetik, bertako instituzioen laguntza, eta, azkenik, nazioarteko erakundeen onarpena.

Ados. Baina herriari ez dago eskatzerik etengabe, *in eternum*, militante izaten jarraitzeko. Noizbait pasatu beharko dugu euskaraz mintzatzea ekintza kontzientzia izatetik inkontzientzia izatera, oharkabean euskaraz aitzera. Hori lortzen ez den bitartean ez dago normalizazioaz mintzatzerik, eta Patxi Bastarriak aldarikatu zuen "elebitasun perfektua" erdiesterik, elebitasun perfekturik izan badaiteke.

Rufino Iraola

Zorion-agurrak



Maialen

Jose Javier, aita eta amaren partetik 12 muxu haundi.



Francisco eta Tina

Zorionak zuen urrezko ezteietan. Semeak eta bilobak.



Ian

Zorionak osaba, guraso eta aiton-amonen partetik.



Eneko

Zorionak!! Zure urtebetetze egunean ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



Malen

Zorionak txiki, 2.urtebetetzean. Nahia, amaitxo eta aitaxo.



Idoina

Zorionak Ander, Uxue eta Asierrren partetik, asko maite zaitugu.



Uxue

Zorionak sorgintxo! 9 muxu handi familia gutziaren partetik



Gael

Zorionak eta marrubizko muxuak izebita eta osabitaren partetik.

Guardiak

Ostirala, 3

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 4

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 5

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 6

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 7

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia . 943371629
Zerbitzu Sozialak . 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oria eta ingurunean gela bat hartuko nuke errentan.
Tel.: 669 719120 (Julen)

• Garaje bat salgai Zumaburun.
Tel.: 943-372752

Salerosketak

• Panderoa salgai. Egoera onean, gutxi erabilia. 60 euro
Tel.: 943579565.

• Dendan ipintzeko isla motako frigorifiko bat erosiko nuke.
Tel.: 696 130549.

• Garajeko marra alokatzen da Atsobakarren. Tel.: 943 363524.

• 2. eskuko portatilak saltzen ditut. IBM, Toshiba... IBM Thinkpad T40, 40 Gb, 512 Mg, Wifi integratua, CD grabagailua, DvD irakurlea, 2 portu USB etab.
Tel.: 695719084

• Salgai Megane 1.5 DCI. 132.000km (2003). Egoera onean, 6.000 euro.
Tel.: 653 709737 (M^lxabel)

• Furgoneta salmentan. VW Eurovan T4 2.5 TDI 88 CV. 2002 urtekoa. 71.000 km. Lo egiteko prestatua: mahaia, ohea, kortinak. 5 plaza. Oso egoera onean.
Tel.: 636 468056.

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da haur bat zaintzen laguntzeko.
Tel.: 655 700253

Lan-eskariak

• Emakume arduratsu bat eskaintzen da etxeak garbitzeko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Orduetgia: 12:30-15:30. Tel.: 678 853976

• Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko.
Tel.: 634 780514

• Klase partikularrik ematen ditut: ingeleza, matematika, euskara, lengua...
Tel.: 636 935734.

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

Jaiotzak

Eneko Otamendi de Pablo, irailaren 28an.
Nerea Lopez Hernandez, irailaren 25ean.
Maialen Suarez Martinez, irailaren 24an.

Heriotzak

Manuela Gonzalez Lopez, urriaren 1ean 68 urte zituela.
Matilde Santisteban Castillo, urriaren 1ean 83 urte zituela.



**Gazte Informazioa
Bulegoa**

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Argazki Rallya

Urriaren 11n *Amasa-Villabonako I. argazki rallya* ospatuko da. Izen ematea egun bertan, Errebote plazan 08:30etik 09:30era eta 5 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago 652 726490 eta 626149932 telefono zenbakietan.

Elkartasun Jaialdia

Urriaren zehar 13. *Donostia Mundu artean elkartasunaren jaialdia* ospatzeko, ekintza ugari egingo dira hegoaldeko herrialdeek eta bereziki emakumeek bizi duten errealitatea erakusteko: hitzaldiak, erakusketak, musika-emanaldiak...

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA**

Eskaintza ugaria Gazte ikastaroetan

■ Gazteria sailak antolatutako ikastaroetarako matrikulazio epea ireki da

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako gazteen aisaldirako eskaintza ia handitu zen, Gazte ikastaroak sortu baitzuten Gazteriako sailak. Espe-rientzia ona izan dela ikusita, hurrengo hiruhilabeteko ere ikastaroak antolatu dira eskaintza gazteagoa eginez. Honela, breakdance, yoga, patinajea edo makillajea ikasi dai- teke Manuel Lekuona kultur etxean. Izena emateko epea irekia dago eta urriaren 8a da azken eguna.

2008ko azken hiruhilabeteko gazte ikastaroak aurkeztu ditu Gazteria sailak.

Breakdance, sendabelar- rakk, erreflexoterapia, batuka, makillajea, perkusioa, erlaxa- tzeiko teknikak, bisuteria, sabel-dantza, yoga, patinajea, haur tailerak eta funkya, era eta gustu desberdinetako ikas- taroak beraz.

Jesus Maria Zaballos saile- ko buruak aipatu duenez, antolatu dituzten ikastaro berriekin eskaintza gazteago bat egiten saiatu dira.

Eta honetaz gain, aurreko hiruhilabeteetako ikastaro kopurua handitu du Gazteria sailak.



Ikastaroetako bat patinajea izango da, beraz gazteek aukera ederra izango dute patinatzen ikasteko.

Urriatik abendurako irau- penaz izango dute eta astean behin emango dira kultur etxean. Astean zehar arratsal- deetan 19:00etatik 21:30etara eta berrikuntza bezala 9:30etatik 13:30etara larun- bata goizetan. Honen harira Zaballosek zera esan digu, larunbata goizetako ikastaro- ak astean zehar lanean dau- denek aukera izateko antolatu direla.

Harrera ona

Gazteria eta Festa sailak saileko ikastaroen eskaintzari ongi erantzun diote gazteek eta

honen erakusle aurreko hiruhilabeteko 72 ikasleak dira.

Orduan sabel-dantza, batuka, erreflexoterapia, emo- zio-adimena eta tarota uztartu ziren, baita 15 urteko gazte talde batek perkusioa ikasi ere.

Eta, igorri dituzten datuen arabera, dantzarekin zer iku- sia duten ikastaroak, hau da, sabel dantza eta batuka dira arrakasta handien duten ikastaroak. Oraingoan eskaintza ugaritu dute eta ikasle zenbakia handitzea espero dute.

Prezioa eta izen ematea

Gazte ikastaroetan matrikula- tzeiko epea dagoeneko irekia dago.

Honela, ikastaro bakoitza- ren prezioa 41,20 eurokoa da Lasarte-Orian erroldatuak dau- den gazteentzat eta 77,75 euro- koa erroldatu gabeentzat.

Ez ahaztu Lasarte-Oriako gazte txartela dutenek %10eko beherapena izango dutela.

Beraz, interesa dutenek urriaren 8ra arte dute gaz- teentzako informazio bulego- ra gerturatu eta izena emateko. Anima zaitzete. •

MARGO ETA MARRAZKIA

Margo eta marrazki ikasturte berria

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta hel- duentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaro- ak urriaren 1ean hasiko dira Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurten eskolak astele- hen, asteazken eta ostiraletan 18:30etatik 20:30etara izango dira eta larunbat goizetan 9:30etatik 11:30etara. Txikie- nek marrazten ikasteko auke- ra izango dute larunbatetan 11:45etatik 12:45etara. Oraindik izena-emateko epea zabalik dago, beraz ikastaro hauetan parte hartu nahi due- nak edo informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, kultur etxetik pasa behar du. •

UDAZKENEKO FESTA

Erleak ikusgai Zabaletan

Zabaleta Auzolan elkarteak urteroko Udazkeneko Festa antolatu du astebururako. Auzoko plazan izango da bihar, urriaren 3an. Arratsalde- ko 18:30ean hasiko da erle- zaintzako erakustaldi batekin. Julian Urkiola Gipuzkoako erlezainen lehendakaria etorri- ko da erleek lana nola egiten duten azaltzera. Diapositibak erakutsiko ditu baina bitxia izango da erakustaldia horre- taz gain erleak eramango dituelako. Bertaratzen den jen- deak gertutik eta zuzenean ikusi ahal izango du erleen lana nolakoa den. Amaitutako- an sardin jana egingo dute. •

Musika

Guaraná taldeak *De lao a lao* diskoa aurkeztuko du bihar

Guaraná pop taldea Lasarte- Orian izango da bihar. Alacan- teko bikoteak *De lao a lao* disko berria aurkeztuko du Andatza plazan 23:00etatik aurrera eskainiko duen kontzertuan.

Baina azken diskoko hamahiru abestiez gain, aurreko lanetatik berreskura- tutakoak ere entzuteko aukera egongo da, hala nola, *En la casa de Ines* abesti famatua.

Ekimena Udaleko Gazte- ria eta Festetako sailak anto- latzen dituen zita musikalen baitan kokatzen da eta kasu honetan sarrera doakoa izango da.

Bosgarren diskoa


De lao a lao taldearen bosgar- ren diskoa da 2000 urtean beren lehen lana argitaratu zutenetik, *El efecto Guaraná*. Taldekideek, Juanra Arnaiz eta David Navarrok ekoiztu dute eta Melendiren laguntza izan dute abestietako batean.

Beren soinua mediterrane- oko rocka edo rock latinoaz bezala definitzen dute eta ohikotasunean inspirazio hartu dutela azaldu dute, beren lagunek kontatutako istorioetan.

Zita musikalak

Gazteria eta Festa sailak antola- tzen dituen zita musikalen hel- burua lasarteoriarren musika eskaerak asetzea da eta ahalik eta estilo gehienak bere baitan hartzea. Modu honetan Udalak jarraipena eman nahi dio orain dela urtebete Despistaos talde- ren bisitarekin sortutako aurre- kariari. Izan ere, kontzertu horretan gazte ugari bildu bai- tziren Andatza plazan.

Honen ostean udalerrian izan dira beste batzuen artean, Pedro Javier Hermosi- lla, Ismael Serrano edo Ken Zazpi. Eta guztien emanaldiek harrera ona izan dute lasar- teoriarren artean. •



IKASTOLEN EGUNA

Kilometroak igandean Iruran

Igande honetan ospatuko da Gipuzkoako Ikastolen festa eta haraino iristeko modu on bat autobus edo trenean joatea izango da. Hiriarkeko autobu- sek zerbitzu berezia emango dute igandean, Donostiatik atera eta Lasarte-Oria eta Andoainetik pasata Iruraino egingo dute ibilbidea. 30 minutuero 9:30etatik 16:00etara eta 16:45etatik 20:45ak arte egongo dira auto- busa eta Iruratik buelta egiteko 30 minutuero zerbitzua egingo dute 11:35ean hasi eta 20:35ak arte. Villabonan apar- kaleku handi bat egongo da eta bertatik ere autobusak egongo dira etengabeko joan etorrian 10 eta 15 minutuko tartean eta bizikletan joatera animatzen direnak ere apar- katzeko parking bereziak eduki- ko dute Iruran. •

Jon ALTUNA

Leire Etxarri / Irurako ikastolako guraso lasarteoriarra

Bost gune prest dauzkate ikastolako antolatzaileek Irura eta Anoetan barrena igandean Kilometroak ospakizuna burutzeko. 6,5 kilometroko ibilbidean sakabanatutako guneetan hainbat ikuskizun eta ekitaldi berezi eskainiko dira ospakizunera hurbiltzen direnentzat. Leire Etxarri lasarteoriarra Iruran bizi da eta berak eman digu jai-egunaren antolaketa eta helburen berri.

Zer egongo da igande hone-tan Iruran?

Jai giroa, euskal giroa eta ikastolen aldeko festa handia.

Nolatan erabaki zenuten festa antolatzea?

Ikastola txikia da Irurakoa, Herriak 700 biztanle izan ditu eta orain 1.400era pasa da, bikoiztu egin da. Beraz, ikastolako haur kopurua handitu egin da eta ez ginen sartzen.

Haur txikiak Udalaren lokal txiki batean zeuden, handiagoak beste batzuetan, udal liburutegia eta barrakoi aurre-fabrikatu bat erabiltzen ziren, jangela eta ordenagailuentzat udalaren eta apaiz-etxearen aretoak,... handitzeko edo berri bat eraikitze beharra zegoen. Edifizio berria egin da lehen hezkuntzako haur-erentzat. Txikiak lehengo eraikinean segituko dute eta lehen hezkuntza doa berria.

Nola doa antolaketa?

Lan talde asko egon dira lanean, dena borobiltzeko, trafikoa, zirkuitua, ikuskizunak, dendak,... ni horretan aritu naiz, arroparekin. Diru-iturri ona da, denda finko bat daukagu zabalik eta denda ibiltaria, asteburuo dabil festaz festa arropa saltzen.

Zer nabarmenduko zenuke egitarautik?

Zirkuitua bost areatan banatuta dago, eta gune bakoitzaren giro ezberdina dago, gazteentzako gunean kontzertuak izango dira, haur eta familientzako beste gune bat prestatu da eta abar. Arearen arabera gauza ezberdinak antolatu dira.

Trena erabiltzeko eskatu du antolakuntzak, Lasarte-Oriatik joan behar direnentzat, zein aholku ematen dituzue?

Batetik autobus gehiago egongo dira, eta bestetik norbait bizikletaz joatera animatzen baldin bada, aurtan nobedade gisara bizikletak uzteko lekuak izango dira, bizikletentzako parkingak. Beste nobedade bat izango da aurtan haur txikiak dituzten familientzat toki bat izango dela bi gunetan, bularra emateko edo pardelak aldatzeko.

Kilometroak Iruran 14 kilometrora

2008ko Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen festa, Iruran egingo da igandean, eta herri hau bihurtuko da orain artean ospakizuna antolatu dutenen artean txikiena. Ikastola berria inauguratu dute irailean, azken urteotan hazi egin den herri honen premiei erantzunez eta beraz, igandean jasotako dirua eraikin berria ordaintzeko erabiliko da. Hain juxtu aurtengo edizioaren leloa "eraikitzen" izango da.



Leire Etxarri, atzean, Irurako ikastolako haurrekin batera. Eraikitzen da aurtengo ospakizunaren leloa.

Aurtengo nobedadeen artean bizikletaz joaten direnentzat jarriko diren aparkalekuak daude.

Hiriarteko bus zerbitzua hobetuko da eta autobus gehiago jarriko dira igandean Irurara joango direnentzat.

6,5 kilometrotan jarriko diren bost guneetan denetarikoa ikuskizunak eskainiko dira egun osoan zehar.

Dena prest dago beraz, orain eguraldi ona egitea falta. Begiratu al dituzue aurreikuspenak?

Ona egingo du. Duela egun batzuk emandako prebisioak aldatzen ez baldin badira ona egingo du.

Aurreko egunetan egongo al da zerbaite?

Lan asko, je je.

Beste zerbaite gehitu nahi?

Eguna badator, bost gune dira era guztietako ikuskizunak dauzkagu antolatuta, ume, gazte, heldu,... hurbiltzen diren guztientzat. Gonbidatuta zaudete denok.

Bailararen parte-hartzea

Iruran kilometroak antolaterakoan garrantzia eman diote herri kohesioari, horixe izan da antolatzaileek bilatu duten helburuetako bat eta Tolosaldeko hainbat lagun arituko dira lanean.

Irurak azken urteetan aldaketa handia jasan du, 700 biztanletik 1.400era pasa da. "Lo egiteko hiri edo ciudad dormitorio bihurtzen dira horrelako herriak askotan eta lortu nahi duguna da jendea herrian asentatu dadila, gure seme-alabak herrian hazi eta hezi daitezen" esan digu antolatzaile batek.

Dena den, herri txikia da, 23 urtetan kilometroak jaia antolatu duten herri guztien artean txikiena izango da igandetik aurrera. "Herrian ez gara 1.500 lagun, honelako festa baten antolaketa 1.500-2.000 pertsona inguru behar ditu egunean bertan eta ingurua inplikatu dugu. Iruran lehen hezkuntza egiten dute, bigarrenean Anoetara pasatzen dira, eta azkenik Tolosan bukatzen dute. Beraz bailara inplikatu egin dugu. Logotipoa ikusi baduzue, lau-buru edo hiru-buru antzekoa da. Hori isladatu nahi izan dugu".

Hirugarren asteburua jai giroan

San migel da Irurako patroia eta bi asteburu festatan pasa ondoren jai-giroak jarraituko du igandean Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jai eguna egingo baita bertan.

Bost gune izango dira Irura eta Anoeta artean prestatu duten 6.5 kilometroko ibilbidean. Lehenengo arean, Irurako ikastolan, haurrentzako ekitaldiak izango dira nagusi: Patxin eta Potxin pailazoak, Betizu gunea, Txan magoa eta JonMagic, Poxpolo eta Mokolo pailazoak,...

Katategi izeneko bigarrenarean gazteentzat kontzertuak eskainiko dira: Zea Mays, Deabruak Teila-tuetan, Obrint Pas, Trikizio eta Betagarri. Anoetako plazan denetik izango da, jolasak, dantza, Jone, Desordutan, Che Sudaka eta Tapia ta Leturia.

Beste hiru gunetan denetik izango da, Anoetako plazan jolasak, dantza, Jone, Desordutan, Che Sudaka eta Tapia ta Leturia, Anoetako ikastolako laugarren gunean euskal jokoak, Mak, Mamba Beat eta Amaieur, eta Irura herriko bosgarrenean, dantzak, Xurdir, Hipo eta Tomax pailazoak, Samar, DJ Makala eta Laket.

Lehen gunean, Irurako frontoian, sagardotegiko menua eskainiko da, 3.gunean Anoetako frontoian Km menua, marmittakoa eta biribilkia, eta 4.gunean Anoetako kiroldegian, Eraikitzen menua, Paella eta baserriko oilaskoa. Guztiak postre, ogi ur, ardo edota sagardoarekin.

Ttun-ek urtero antolatu ohi du autobus Kilometroak-era hurbildu nahi dutenentzat, baina Iruran izanik eta autobus zerbitzua indartuko dela jakinik ez du autobusik jarri. Hiriarteko autobusa erabiltzeko edo bizikletaz joateko gonbidapena luzatu dute antolatzaileek.

360 ordu falta dira, 40 orduko erronkarako

■ Laguntzaile lanetarako eta bi probetarako izen-emate epea irekia dago oraindik ■ Giroan sartzeko 2004ko edizioko argazki erakusketa antolatu da Jalgin

TXINTXARRI

Larunbata gauean zortzikoteko gizonen egindako strip-teasearen irudia buruan daukagu oraindik, baita Okendo plaza osoa *Bero-Bero* abestia dantzatzeko ere. Atzo izan zela dirudi, baina dagoeneko lau urte pasa dira eta bi aste besterik ez dira falta Euskararen 7. Maratoiako.

Horregatik, herritarrak girotzen hasteko Ttakunek Maratoiari buruzko erakusketa antolatu du Jalgi kafe antzokian.

Era honetara, batetik herritarrek gogoan dituzten 6. maratoiko momentu ugari iruditzen ikusteko aukera izango da eta inoiz bizi ez dutenentzat maratoiaren muinaren ideia izateko balioko dute.

Argazkiez gain, Euskararen 7. maratoiako muxuak ere bertan egongo dira. Ezin dugu askorik aurreratu, baina garrantzia handia izango dute urriaren 18 eta 19an.

Eta, gainera, 2008ko edizioa prestatzen hasteko aurtengo leloa duten haur eta helduentzako kamisetak egongo dira Jalgin.

Web orrialdea

Baina maratoiari buruz gauza gehiago jakiteko edo pixkanaka giroan sartzeko beste era bat ere badago, www.euskararenmaratoia.com web orrialdea.

Bertan CDko zazpi abestiez gain, zortzikoteari buruzko informazioa dago, maratoiaren bideo klipa, beste ediziotako argazkiak, aurtengo proben nondik norakoak... Gainera maratoia aurrera eramateko laguntzaile moduan edo probetan izena emateko aukera dago.

Bi proba nagusiak

Honela, ez ahaztu korritzeko modukoa den maratoi honetan etenik gabeko bi erronka ditugula, Tiriri Tarara Teresategira! eta Baietz 7 aldiz korritu maratoia! Helburua Euskararen 7. Maratoia Okendotik atera eta herrira zabaltzea.

Laburki: Tiriri Tarara Teresategira! probaren erronka, igande gauean oholatza gainerako saskian 40 pinu kozkor egotea da. Horretarako partehartzaileek Tere-



Euskararen VI. Maratoian David Bisbalen bisita izan genuen. Ea aurtengo edizioan nor datorren!

sategi mendira joan, pinu kozkorra bildu eta oholatza entregatuko dute. Ibilbidea markatuta egongo da, beraz ez da inor galduko. Errelebo gisa motxila bat eramango dute taldeek. Eta txanda bukatutakoan, hurrengo taldeak motxila hartu eta Teresategira!

Bestalde, herri barruko 2 kilo-

metroko zirkuituan egingo da Baietz 7 aldiz korritu maratoia! 7 maratoi bete beharko dira eta hauen hasiera ordu finkoan eta oholatza gaineran egingo da. Maratoi bakoitza talde batek egingo du baina bidean edonor gehitu daiteke martxara, hau da, bakoitzak nahi duen zatia egin dezake, nahi duenean sartu edo atera.

Bi erronka hauetan parte hartzaileak taldeka antolatuko dira txanda ezberdinetan eta horretarako ordutegiak prestatu dira.

Lehen deialdia egin zenetik talde eta herritar dezentek eman dute izena bi probatan. Hala ere, txanda batzuk geratzen dira libre.

Izen ematea web orrialdean edo Ttakunen egin dezakete taldeek eta bietan egokien duten txanda aukeratu dezakete.

Laguntzaileak

Era berean, aurtengo edizioan

Ttakunek otordu guztiak Okendo plazan egiteko aukera emango duela gogoratu nahi du.

Honela, maratoian parte hartzeko era asko dagoela azaldu nahi dugu, esate baterako, probetan murgildu, otorduetan eta otordu osteko saioen ikusle izan edo maratoian parte hartuko duten elkarteetako kide izatea.

Baina, lehen aipatu bezala, beste modu bat ere badago. Izan ere, garraio lanak, dekorazio lanak edo begirale lanak egiteko, dendan egoteko edo otorduetako mahaia prestatu eta larunbateko afaria zerbitzatzeko laguntzaileak behar baitira.

Erreportaje honetan aipatutako guztiari buruzko informazio zehatza eta osoa www.euskararenmaratoia.com m web orrialdean duzue.

Anima zaitzete eta era batera edo bestera Euskararen 7. Maratoian parte hartu! •



EUSKARAREN MARATOIA 7

Korritzeko modukoa!

Otorduetarako txartelak salgai!

* Urriaren 6tik aurrera

Ttakunen eta Jalgin

Lasarte-Oria 2008ko urriaren 18a eta 19a

www.euskararenmaratoia.com

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 4

10:30ean, Ostadar-Kostkas M.B. (Infantil txikiak) Michelinen.
12:00etan, Ostadar-Allerru (Kadet. Ohorezko) Michelinen.
17:15ean, Ostadar-Segura (I. Jubenila) Michelinen.
15:30ean, Ostadar-Touring (Emakumeen Liga) Michelinen.

09:30ean, Hernani-Ostadar (Emakum.KDT F-11) Hernani.
16:30ean, Intxurre-Ostadar (II. Erregionala) Elorri (Alegi).

Igandea 5

10:30ean, Lasarte-Oria Taldea-Danena (II. Erregionala) Michelinen.

12:00etan, Hernani-Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) Hernani.
12:15ean, Antiguoko-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Berion (Donostia).

■ ARETO-FUTBOLA ■

Larunbata 4

15:30ean, Eskolapioak-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Eskolapioak (Tolosa).
17:15ean, Aldaz H.K.-Meatzari (Euskal Liga) Kiroldegian.

■ FUTBOL 7 ■

Igandea 5

11:00etan, Bar Campus-Niasa-Corpa (3. Maila) Usurbilen.

■ PILOTA ■

Larunbata 4

12:00etan, Intza-Legazpiko Gaztetxea (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.
12:00etan, Intza-Hernani 2 (Eskuz binaka I. Jubenila) Michelinen.

■ ATLETISMOA ■

Larunbata 4

16:00etan, Zakila bira, proba klasikoa Zumaian, 20 km.

Igandea 5

11:00etan, Orreaga-Zubiri lasterketa. Santiago bidearen lehen etapa, 22 km.

Kiroletako oharrak

LOKEko tenis eskola

Tenis eskolak entrenamenduak hasi ditu eta 7 eta 8 urtetako taldean lekua dago oraindik. Beraz, talde honetan izena emateko epea ireki da, Michelingo kirol gunean astelehenerik ostegunera, 18:30etatik aurrera.

Anduri zaldi lasarteoriarra bikain ibili da Europako txapelketan

■ Maila handiko zaldi artean ibili da herriko Muxala zalditegikoa Oviedoko zaldi-zentruan egindako Europako Zaldizko Gazteen Raiden Txapelketan

TXINTXARRI

Txapelketa ona egin zuen joan den asteburuan Anduri zaldiak. 28. postuan egon zen ibilbidearen zati batean baina azkenean errekuaratu eta hemeretzigarrena lortu zuen. Maila handiko beste zaldi eta zaldizkoen artean ibilita emaitza ona da lortutakoa. Froga gogorra izan zen ibilbidearen zailtasunagatik, egiten zuen beroagatik eta gainera lehenengo postuak eskuratu zituzten parte hartzaileek jarri zuten erritmoagatik.

"Anduri" Odol garbiko zaldi arabiarrek hemeretzigarren postua lortu zuen Europako Zaldizko Gazteen Raiden Txapelketan Joan den irailaren 27an.

Oviedoko Asturcon zaldizentruan ospatu zen txapelketa 62 parte hartzaileekin, hauek hamabost herrialde desberdinetatik etorritakoak (Alemania, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Britania Handia, Holanda, Hungaria, Italia, Lituania, Norvegia, Portugal, Txekiar Errepublika, Suezia eta Suitza). Horietako bat, "Anduri", Xabi Etxezarreta eta Bakartxo Irazusta lasarteoriatarren Muxala zalditegiko zaldia da. 28. postuan egotera heldu zen baina errekuaratu zen joan eta azkenean hemeretzigarrena izan zen Anduri eta Pere Llorens Kataluinako zaldizkoak lortu zuten postua.

Maila handiko parte hartzaileak

Lasterketa arratsaldeko 7:30ean hasi zen eta helmugara lehenengo iritsi zena



"Lamiah el Oued" zaldia izan zen Lucie Marin zaldizko frantsesarekin. Bigarren postua baita ere Frantziako "Spiga" zaldiak eraman zuen eta hirugarrena Belgikako "Kalah Grey"-k.

Maila altuko lehiaketa izan zen eta bikain aritu ziren Pere Llorens eta Anduri. Ibilbideak zeuzkan 120km-ak egiteko 11 ordu eta 11 minutu eman zituzten 13,51Km orduko batatz beste-ko abiadurarekin. 11,20 minutu behar izan zituen errekuaratu egiteko ibilbidean zeuden mediku azterketa ezberdinetan.

Lehenengo fasean 22. postuan eraman zuen Pere Llo-

rensek zaldia, bigarrenen 28 postua arte atzeratu ziren, ondoren, hirugarrenean, bat errekuaratu eta 27. postuan ibili ziren, laugarrenean 22. postua errekuaratu zuten eta azkenekoan 19. posturaino heldu ziren.

Ibilbide neketsua

Txapelketa gogorra izan zen eta horren erakusle da froga bukatu zuten zaldi kopurua, 36 zaldik bakarrik bukatu zuten froga hasi zuten 62tik. Ibilbideak mendi aldapa gogorak zeharkatzen zituen eta gainera tenperatura altuak jasan behar izan zituzten zatirik gogorrenetan, ibilbidearen azken zatietan.

Lehenengo sailkatuek eritimo gogorra ezarri zuten gainera hasieratik eta horrek oraindik zailagoa egin zuen txapelketa zaldientzat.

Zaldi lasarteoriatarren emanaldia bikaina izan zen maila handiko zaldi europarrekin egin zuen lehian. Urteak pasa ditu zaldiak entrenamendu gogor eta maila handiko lehiaketetan parte hartzen horregatik merezi duen deskantsua hartuko du orain. Agian, aurrerako zalditegiko arduradunen erabakiaren arabera, ikusi ahal izango dugu Anduri berriro lehian orain arte aritu den moduan, maila goreneko lehiaketatan. •

Emitza onekin hasi dituzte judoko txapelketak lasarteoriatarrek

Judoko denboraldi berria hasi da eta horrekin batera txapelketak. Joan den larunbatean, irailaren 27an, Valladoliden ospatutako 23 urtetik beherako nazioarteko txapelketan parte hartu zuen Beñat Elizalde. Bost borroka egin zituen eta bat galdu eta lau irabazi ondoren brontzezko domina eskuratu zuen lasarteoriatarrek. Denboraldia ondo hasi

du Beñatek eta asteburu honetan berriro Bartzelonara joango dira bera eta Iñaki Elizalde beste txapelketa betan parte hartzera. Batak junior mailan eta besteak junior mailan egingo du.

Lehenengo txapelketako emaitzak ikusita bigarrenen ere ondo arituko dela espero dugu. Ondo hasitako denboraldia berdin jarraitu dezala. •



Egunero

Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioako materiala ikusgai Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Larunbata, 4

Musika

GUARANÁ taldearen kontzertua Gazteria sailak antolatuta. Andatza plaza, 23:00etan, GAZTELANIAZ

Osteguna, 9

Zinea

TALK TO ME filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan. Sarrera, 4 euro.



Antzerkiz blai gaur iluntzean

Landaberri Antzerki eskolaren ikasturte hasierako ekitaldi bezala Usurbilgo Txerriki Taldeak LIDER BERRIA obra eskainiko du Sagardotegi kalean. Jalgioko egitarauak ere bat egin du ikasturte hasierarekin eta Lakrikun Antzerki Taldeak GREBAN GAUDE obra (Kultur Errota) eskainiko du.

OSTRIALA 3, 20:00ETATIK AURRERA
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
EUSKARAZ

Ostirala, 10

Hitzaldia

RAFA DIEZEK, LABeko idazkari ohiak, hitzaldia eskainiko du Xirimiri Elkartean, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

Asteazkena, 15

Hitzaldia

AITAREN PAPERARI BURUZ arituko da Pilar Seminario psikologoak, maistra eta Apir eta Sortuz elkarteetako kideekin batera. Oti 7ra urteko umeen gurasoei zuzendua, Sanitateko, kontsumoko, merkataritzako eta ingurumeneko departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

Osteguna, 16

Hitzaldia

ETXE BARRUKO BORTIZKERIARI BURUZ jardungo da Xabier Arrazola, psikologo klinikoa. Sanitateko, kontsumoko, merkataritzako eta ingurumeneko departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik aurrera. GAZTELANIAZ.

Ostirala, 17

Jam sesioa

DINBI DANBA talde izango da gonbidatua hilabeteko antolatzaren den Jam sesiora. Bertan jazz-a eta blues-a jotzeko eta entzuteko aukera egongo da. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Larunbata, 25

Musika

BAD SOUND SYSTEM taldeak dub, reggae, dancehall eta ska musikaz beteko du Jalgi kafe antzokia. Ondoren DJ saioa eskainiko da 3:00ak arte. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

EUSKARAREN 7.
MARATOIA

Animatu eta hartu parte!

Sartu www.euskararenmaratoia.com
web orrialdean eta eman zure izena!

Kamisetak salgai Ttakunen eta Jalgin.

Informazio gehiago: Ttakunen, (Geltoki kalea 4) edo 943 371448 telefonoan.



Oharrak

Xumela korua

Ikasturtearekin batera, hasita daude Xumela koruko kideak biltzen. Bilkura eguna, pasa berri den ikasturtean bezala astelehenero arratsaldeko 19:30ean izango da Landaberri BHiko egoitzan. Interesa duenak agertzea besterik ez du.

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaile eta abuztuan, Ttakun Kultur Elkartek antolatutako Udako Txokotan egondako haurren argazkiak biltzen dituzten CDak urriaren 6tik aurrera eskuratu ahal izango dira Amaraun ludoteko (Ola kalea 1). Arratsaldeko: 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Aterpearen eskerrak

Faktory azoka antolatzen lagundu zuten guztiei esker eman nahi die Aterpeak: Lasarte-Oriako udalari bere disposizioagatik eta finantzaioagatik: Landaberri ikasto-

lari megafonia uzteagatik; Rural Kutxari logistikagatik; GATC-ri, Gorkaren bidez antolaketa kordinatu zuelako; Zumaiako Zelairi bere talasoterapiari bi egonaldi eskaini zizkigulako guk bertaratuen artean zozketatu ahal izateko; Jon Lasa eta bere ikasleei, musu truk festa girotu zigutelako; eta nola ez, bertara hurbildu zirenen guztiei. Guztiei, mila esker!

Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkartek eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburur) eta Coviran supermerkatuan (Oztarán emparantzan) erosi ahal izango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

Oriatarren eskerrak

Oriako bizilagunen bazkariko antolatzailerek Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronso-ro organistari, Aburuza autozerbitzuari, Urnietako Eudure loredendari, Solano Trikitilariari, Billabonako Eskola taldeari, Txitxardin Beltxa jatetxeari eta honen sukaldari eta zerbitzariei "prestatu zuten bazkari goxoagatik", Diario Vasco, Txintxarri eta Noticias de Gipuzkoa komunikabideei eta Ramon Uribetxeberria apaizari eskerrak eman nahi dizkie emandako laguntzarengatik.

Udazkeneko festa

Zabaleta Auzolan elkarteak Udazkeneko Festa antolatu du auzoko plazan urriaren 3rako, ostiralerako. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da festa erlezaintzako erakustaldi batekin. Julian Urkiola Gipuzkoako erlezainen lehendakariak erleek lana nola egiten duten azalduko du diapositi-

ba bidez eta bertan erleak erakutsiko ditu. Amaitutakoan sardini jana egingo da.

Katxalin Elkarteoko loteria

Bulareko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimotoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesak dutenek KIUBn egin dezaket, Ganbo kalean.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Ttakunek ez du autobusik antolatuko Kilometroakera joateko

Gipuzkoako Ikastolen festa Iruran ospatuko da igandean Iruran. Bertaratzeko modurik onena zerbitzu publikoak erabiltzea denez, urtero Ttakunek autobusa antolatzen du. Aurtun ordea, Irurak duen gertutasunagatik eta Lasarte-Oriako autobus konpainiak zerbitzu berezia jartzeko asmoa duenez (30 minutuero autobusa antolatu dute), Ttakunek bertara joateko autobusik ez du antolatuko.

Ogia erosteko oihalezko poltsak

San Markos Mankomunitateak plastiko eta paper hondakinen sorrera gutxitu nahi du

TXINTXARRI

Berriro erabil daitezkeen oihalezko poltsak erabiltzea bultzatzen duen kanpaina bat hasi du San Markos Mankomunitateak. Ogia saltzen den dendetan, 60.000 poltsa banatuko dira. Horrela, plastikozko poltsen erabilera gutxitu eta hondakinen sorreraren prebentzioa bultzatu nahi dute.

San Markos Mankomunitateak Zurekin egunero kanpaina garatu du AGIPAN Gipuzkoa-ko okinen elkartearen babesa eta lankidetzari esker.

Mankomunitateak bitarteko baliagarri den oihalezko poltsa jarriko du herritarren eskura hondakinen sorrera gutxitzeko eta prebentzioaren aldeko kontzientzia sustatzeko.

San Markos Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan ogia saltzen duten dendei zuzendurik dago kanpaina eta helburu nagusia

egunero ogia saltzean erabiltzen diren plastikozko poltsen eta paperezko bilgarrien erabilera gutxitzea da.

60.000 poltsa

Honela, herritarrei berriro erabil daitezkeen oihalezko 60.000 poltsa banatzea da kanpainaren jarduera nagusia; poltsa bat emango zaio bezero bakoitzari ogia saltzen den dendetan. Egunero ogia erosten poltsa hori erabiltzea bultzatu nahi da.

Poltsen banaketa egun berean hasiko da parte hartzen duten denda guztietan, urriaren 5ean, igandea.

Zozketa

Honetaz gain, berriro erabil daitezkeen poltsarekin dendara joaten direnek zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute. Saria bi pertsonarentzako afaria da Donostiako Arzak jatetxean. Txartel saritua eman duen dendak ere sari

berdina jasoko du.

Zozketa notario aurrean egingo dira azaroaren 4an eta abenduaren 4an. Eta egun honetan amaituko da kanpaina.

Honetarako, parte hartzen duen denda bakoitzean, postontzi bat utzi da, eta bezeroek zozketan parte hartzeko betetako txartelak han bilduko dira. Gainera, etxeko poltsarekin ogia erostera joaten diren guztietan parte har dezakete bezeroek.

Azkenik, informazio-kartel bat eman da; horren bidez, kanpaina identifikatzea erraztuko

da, eta denda bakoitzeko bezeroei gogoraraziko zaie kanpainen parte har dezaketela. •



zurekin egunero

Hondakin gutxiago sortzeko kanpaina

Erabili egunero etxetik ekarritako zure erosketa poltsa. Sarien zozketan parte har dezakezu edozein poltsa berrerabilgarri erabiliz gero.

Ogi-poltsak **urriaren 5ean, igandea**, banatuko dira okindegietan.

943 670 249

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garaipen Iraunkorrenko Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible

SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS